



## **HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA**

### **2021eko irailaren 7ko bilkura**

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko irailaren zazpian, zortzi eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : GOICOECHEA Iñaki

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren eguna : 2021eko irailaren 3a

Afitxatze eguna : 2021eko irailaren 3a

### **1.ERABAKIA KANTINA ZUZENKI KUDEATZEKO PROIEKTUAREN BAIMENTZEA** Nomenklatura : 9.1

Jaun Auzapezak azaltzen du Kontseiluari jangela nagusi baten sortzeko xedea zuzenki kudeatua. Jangela horrek Ortzaize, Arrosa, Bidarraiko haurrak errezebituko lituzke eta bide batez, Irisarriko Ospitalea Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroak balia lezake ere. Egunka 200-250 bazkari zerbitzatiak ditaizke.

Jaun Auzapezak zehazten ditu proiektuaren puntu azkarrak :

- Herrien arteko proiektua
- Transizio ekologikoa : banaketa ibilbide laburrei balioa eman ekoizle/ekarleen arteko distantziak ttipituz hala nola tokiko mozkinak eta biologikoei
- Jatekoaren xahutzea gutitzea sukaldaria desmartxan inplikatzuz
- Lekuko ekonomia egitura azkartu : lan postuak sortu eta tokiko ekoizleak balorizatu
- Gure herri desberdinetako haurren ingurumen kalitatea hobetu "ongi jaten" ikasiz

Jaun Auzapezak seinalatzen du Departamenduko ingeniaritza zerbitzukoek lekuak bisitatu dituztela uztailaren 9an eta erran dutela hor den jangelak behar zuen eremua zuela proiektuaren gauzatzeko.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren,

BAIEZTATZEN DU, jangela nagusi baten proiektuaren sortzea zuzenki kudeatua

GALDATZEN DITU dirulaguntzak Departamenduari, Herri Elkargoari, Akitania Berria Eskualdeari eta Estadoari

BAIMENTZEN DU Auzapeza izenpetzera erabaki hunen gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guziak eta beharrezkoak diren urrats guzien egitera.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko irailaren 9an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2021/09/10an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/09/10an.

